

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Funtsezko baliabideak dira enpresa bati ahalbidetzen diotenak bere balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzea. Hau da, funtsezko baliabideak guzti hori egin ahal izateko beharrezkoak diren aktibo nagusiak dira.

Gure funtsezko **baliabide fisikoei** dagokienez, baliabide garrantzitsuenetako bat gure webgunea izango da. Webgunearen bidez, adinekoei zaintzeko hitzordua hartzeko aukera ematen duen atala egongo da eta baita adinekoen fitxa pertsonala betetzeko atala ere. Beste baliabide fisiko bat, gure garraio-elementuak izango dira, gure bezeroengana joan ahal izateko.

Finantza baliabideei dagokienez, dirua izatea garrantzitsua da gure zerbitzua eman ahal izateko, guk edozein gauza behar dugunean ordaindu/eskuratu ahal izateko.

Giza baliabideetako baliabideei dagokienez, adineko pertsonak zaintzeko ezagutzak eta gaitasunak edukitzea funtsezkoak dira.